

HIZKUNTZA-ORDEZKAPENA:

ARABA ETA BARRUNDIAko KASUAK.

Barrundiako herritarren iritziak.

Gorka Blanco.

“Los alaveses amantes del euskera, que no renegamos de nuestra progenia, podríamos sintetizar en tres palabras nuestro bizi-nahi, nuestra ‘voluntad de vida’, y perduración colectiva, afirmando que nuestro amor a la vieja lengua de los vascos es de ‘antes, ahora y siempre’.”

LEN ORAI TA BETI

(Odon de Apraiz, 1976)

AURKIBIDEA

1. Laburpena.
2. Hitzaurrea.
3. Barrundia: kokapena.
4. Euskararen bilakaera soziolinguistikoa Araban.
5. Euskarak Araban jasandako debekuak eta erasoak.
6. Euskararen bilakaera soziolinguistikoa Barrundian.
7. Ondarea: toponimia eta euskal jatorrizko hitzak.
8. Hizkuntza-iraupena eta ordezkapena.
9. Barrundiako herritarren euskararekiko jarrerak eta pertzepzioak.
10. Ondorioak eta etorkizuneko erronkak.
11. Bibliografia.

Eranskinak:

- Barrundiako Euskal jatorrizko hitzak.
- Barrundiako Plan Estrategikoa.
- Galdetegia.

1. LABURPENA

Lan hau azken mende luzean euskara galdu den Arabako Barrundia udalerrian kokatuta dago. Helburua hizkuntza baten ordezkatze-prozesua azaltzea izan da; horrekin batera Barrundian euskararen existentzia frogatzen duten ebidentzia bibliografikoak biltzea, ahaztu gabe gureganaino heldu diren lorratzak, ondarea, hala nola, toponimia eta euskal jatorrizko hitzak. Bestalde, bertako bizilagunen testigantzak, pertzepzio historikoa eta euskararekiko jarrerak jaso ditut.

Hiru osagai nagusi horiek osatzen dute sakontze-egitasmo hau.

2. HITZAURREA

Barrundiako hainbat kasutan ez dira 4 belaunaldi baino gehiago igaro hainbat etxetan euskara hizkuntza nagusia zenetik, baina, bertako biztanleek ba al dakite? ala, “hemen ez da inoiz euskaraz hitz egin” bezalako iritziak daude? Ba al dakite etxe inguruko leku-izen gehienek euskal jatorria dutela? Ezagutzen al dute hitzetik hortzera gaztelaniaz erabiltzen dituzten *oilarri*, *larrein*, *arcasta*, *gailur* eta beste mila euskal hitzen benetako jatorria?

Galdera horien erantzuna bilatzen ahaleginduko naiz ondorengo orrialdeetan, bai eta orain dela ez asko arte, Barrundiako eta Arabako lautadako lurretan euskara jaun eta jabe zela egiaztatzen.

Horretarako, orain arte egindako ikerketak, lanak, idatzitako artikuluak eta, oro har, hainbat autorek idatzitako Barrundia eta Arabako bilakaera soziolinguistikoa azaltzen duten testuak baliatu ditut. Euskarak Araban eta Barrundian egindako bidea hizkuntzen galeraren marko teorikoan kokatzen ahalegindu naiz. Bukatzeko, Barrundiako herritarrek euskararen galeraren inguruan dituzten iritziak jaso ditut herri guztietan egindako galde-sorta baten bidez.

Ez nituzke ahaztu nahi lan hau gauzatzen lagundu didaten pertsonak, bereziki Karmele, Estitxu eta Jabi, Nerea, Itziar, Javi, Barrundiako udaletxeko jendea, eta batez ere Txipi Ormaetxea.

Mila esker denoi.

3. BARRUNDIA: KOKAPENA

Barrundia udalerria Arabako ipar-ekialdean dago kokatuta eta Dulantzi, Donemiliaga, Arratzua-Ubarrundia, Burgu, Iruraitz-Gauna, Eskoriatza eta Oñati ditu mugakide eta Gasteiztik 18 bat kilometrora dago. Barrundiako udalerriak 97,5 km²-ko azalera du, eta 936 biztanle ditu (Eustat, 2011).

Barrundiako biztanle kopuruaren bilakaera adin-tarteka:

	1981	2001	2006	2011
0-19	190	98	144	196
20-64	339	433	553	592
>64	108	109	120	148
Guztira	637	640	817	936

Barrundian, jarduera ia bakarrak nekazaritza eta abeltzaintza dira. Bigarren eta hirugarren sektoreetako ia populazio osoak udalerritik kanpo lan egiten du.

Gaur egun 13 herrik osatzen dute Barrundia udalerria: Audikana, Dallo, Elgea, Etura, Etxabarri Urtupiña, Gebara, Heredia, Hermua, Larrea, Marieta-Larrintzar, Matura, Mendixur eta Ozeta.



HISTORIA ETA ONDAREA:

Barrundia, izenak berak dioen bezala, barruko aldean dago, mendien arteko zenbait haranetan barreiatuta. Barrundiari buruzko lehenengo aipamenak “Reja de San Millán” izeneko agirian aurkitzen ditugu, eta 1025. urtekoak dira. Agiri horretan, Donemiliaga Kukulako monasterio nafar-errioxarrari zerga gisa burdinazko nabarrak ematen zizkioten Arabako herrien zerrenda agertzen da. Garai hartan, bai Araba, bai Errioxa, Nafarroako Erresumaren barruan zeuden.

Dokumentuan, Barrantiz merindadea agertzen da, eta Barrundiako gaur egungo herri gehienak agertzen dira bertan, orain Donemiliagako eta Asparrengo udalerrietan dauden beste herri batzuekin batera. Gaur egun Barrundian dauden herri batzuk, berriz, Ganboako merindadekoak ziren orduan.

Erromanizazioak ez zuen asko aldatu antzinako barrundiar haien bizimodua, nahiz eta, dudarik gabe, kanpoarekiko harremanak areagotu egin ziren; izan ere, Burdigala (Bordele) eta Asturica (Astorga) lotzen zuen Iter XXXIV galtzadak Lautada gurutzatzen baitzuen. Erromatarren inperioa erortzeak eta horren ostean Iberiar Penintsula islamiartzeak ere ez zuten funtsean aldatu barrundiarren bizimodua, bakartuago geratu baziren ere. Denbora horretan guztian zehar Barrundia Baskonia zaharraren inguruan antolatu zen, etengabeko gatazketan murgilduta: bisigodoen aurka hegoalderantz eta frankoen aurka iparralderantz. IX. mendeaz geroztik Iruñeko Erresumako parte izan zen.

Jakina denez, gaur egungo Barrundiako herrien lehen aipamen idatzia “Reja de San Millán” izeneko dokumentukoa da, 1025ekoa. Ondoren, 1200.ean, Alfontso VIII.ak, Gaztelako erregeak, indarrez atzitu zizkion lur haiek Antso VII. Nafarroako erregeari. Bestalde, XV. mendean, Barrundiako herritarrek oinaztarren eta ganboatarren arteko gerrak pairatu zituzten, ganboatarrak Gebaran baitzeuden finkatuta.

Gebaratarren leinu noblea lurralde haietako tenenteen (“gobernadoreak” esango genuke gaur egun) familiatik zetorren, lurraldeok Nafarroako Erresumako parte zirenean. Gartzia Ramirez Nafarroako erregeak konde-titulua eman zion Ladron Gebara jauntxoari, 1134an. Gaztelako Alfontso VIII.ak Nafarroako Erresumako mendebalde konkistatu ostean, Gebaratarrek gobernua galdu zuten, jakina, baina ez, ordea, Gebarako kondeen titulua, eta XV. mendeaz geroztik Oñatiko konde ere bilakatu ziren. Familia hark Nafarroarekin bateratzearen aldeko joera izan zuen beti.

XIX. mendeko gerra zibiletan, Barrundiako herritar gehienak errege karlisten alde agertu ziren. Lehenengo gerran batez ere, arma-ekintza gogoangarriak izan ziren hemen. Dulantziko bataila ezaguna inguruko paraje batean izan zen, Etxabarri Urtupiñatik gertu.

Barrundiako udalerriaren osaketan hainbat gorabehera izan dira historian zehar. Erdi Aroko eta Aro Modernoko herriak bi motatakoak izan zitezkeen, errege-herriak, zuzenean Koroaren menpe zeudenean, ermandadetan bilduta, eta jaurreriak, jaun baten jurisdikzioaren menpe zeudenean. Gure kasuan, banaketa hori, 1835era arte iraun zuena, honako hau zen:

- Audikana, Dallo, Etxabarri Urtupiña, Heredia, Hermua, Larrea, Matura, Otatza, eta Zuhatzola Barrundiako Ermandadean zeuden.
- Garaio, Marieta eta Mendixur Ganboakoan.
- Larrintzar Larrintzarreko Ermandadean, zeina jaurrerikoa baitzen.
- Elgea, Etura, Gebara, Ozeta eta Urizar Gebarako jaunen jaurreriaren menpe (Gebarako jaunak Oñatiko kondeak izango ziren gerora).

Jaurreriak desagertu zirenean, 1835ean, udalerri hauek osatu ziren:

- **Barrundia.** Herri hauek hartzen zituen: Audikana, Dallo, Etxabarri Urtupiña, Heredia, Hermua, Larrea, Matura, Otatza, Ozeta eta Zuhatzola. Hiriburua Audikana zen.
- **Ganboa.** Herri hauek hartzen zituen: Garaio, Larrintzar, Marieta eta Mendixur eta, gainera, Azua, Mendizabal, Langara, Orenin eta Zuhatzu. Hiriburua Azua zen.
- **Gebara,** herri hauekin: Elgea, Etura, Gebara eta Urizar. Hasiera batean, udalerri honetan Oñati ere bazegoen, antzinako jaurreriko hiriburua baitzen, eta udalerri osoa Araban zegoen, Oñati barne, baina laster banatu zen lurraldea Araba eta Gipuzkoa artean.

1885ean, Barrundia eta Gebara batu egin ziren, eta hiriburua Ozetan jarri zen.

Urtegiko urek Ganboako haranaren zati handi bat hartu zutenean, 1955ean, Ganboako udalerriko herriak albokoan artean banatu ziren. Hortaz, Garaio, Marieta, Larrintzar, Zuhatzu eta Mendixur Barrundiara pasatu ziren. Marieta eta Larrintzarreko kontzejuek bat egin zuten eta Zuhatzu Ganboa herrixka uren azpian desagertu zen. (Barrundiako udalaren web orria)



Barrundiako armarria

4. EUSKARAREN BILAKAERA SOZIOLINGUISTIKOA ARABAN

Asko dira azken hamarkadetan Arabako euskararen bilakaerari buruz egin diren ikerketak, aipamenak, idatzi diren artikulak eta lanak; ordura arte, aldiz, albiste gutxi genuen lerro hauek idaztera eraman nauen hizkuntzaren iraganaren inguruan. Landuchio-rengandik hasi eta Koldo Zuazorenganaino, Breñas eta Otxoa de Alda, Odon de Apraiz, Landazuri, Lopez de Guereñu, J.M. Barandiaran, Ybarra, H. Knörr, J. Intxausti... Horiek guztiek egindako lanak hartu, osagai nagusiak atera eta kronologikoki ordenatuko ditut Arabako euskararen ibilbide soziolinguistikoa ilustratzeko.

Bestalde, labur-labur bada ere, aipatu behar dira Arabako eta Barrundiako euskararen hainbat ezaugarri linguistiko (Zuazo, 2012):

Araba osoan ez zen euskara berbera egiten; gutxienez ere eremu argi bi ageri dira: mendebalekoa eta ekialdekoa (...) Arabako euskarak Gipuzkoakoarekin, Nafarroako mendebalekoarekin eta, batez ere, Bizkaikoarekin eduki du loturarik estuena (Zuazo, 2012)

XVI. MENDE AURRETIK:

Koldo Zuazok idatzitako *Arabako euskara* liburuan jasotzen den bezala, garai honetan euskararen berri izateko iturri nabarmenena Errioxako Donemiliagako monasterioari zergak ordaintzen zizkieten Arabako herrien zerrenda da. Garai hartan (XII. mendea), euskarak eta erromantzeak zuten indarra erakusten digu aipatutako zerrendak, izan ere, hainbat eskualdetako herri askoren izenak euskarazkoak edo euskarara egokitutakoak dira; beste batzuenak, aldiz, erdarazkoak nagusi dira (Zuazo, 2012):

Erdarazko toponimoak Arabako hego-mendebaldean agertzen dira gehienbat, Ossingani eta Fornello izeneko eskualdetan. Alderdi hori erdalduna da edo, bestela, oso goiz erdaldundutakoa dela ematen du.

Ernesto Pastor Díaz de Garayo ikertzaileak 2011n aurkeztu zuen transkripzioaren arabera, honako hauek ziren Barrundiako herrien izenak XII. mendean (Zuazo, 2012):

Barrandiz: Galharreta, Gordoua, Harriolha, Narbaiza, Larrea, Hazpurua, Hurigurenna, Zuhazulha, Ermua, Audicana, Algio, Deredia, Andozketa, Kircu, Helkeguren, Zuhazu, Vhulla, Erdongana.

Gainerako herri-izenak eta eskualdeak kontsultatu nahi izanez gero, arestian aipatutako K. Zuazoren liburura jo dezakezue.

XVI. eta XVII. mendeak:


XVI. mendeko lehen hamarkadetan albiste aipagarri bat gertatu zen Arabako lurretan hainbat bidaiari italiarren eskutik. Andrea Navagiero Arabako hiriburutik igarota, honako lekukotza hau utzi zigun:

Parlano in Vittoria Castigliano, ma intendeno ancho Basuenze, & delle ville piú parla Biscaino (Gasteizen gaztelaniaz mintzo dira, baina euskara ulertzen dute, eta gainerako herrietan hizkuntza honetan mintzatzen da.)

Handik urte batzuetara, beste bidaiari italiar batek, Giovanni Battista Venturinok, honela definitu zuen egoera:

E Vittoria capo d'Alva, vicina a Vipusca, et a Biscaglia, la quale sotto nome suo pare che comprenda le dette due, e però ch'essa Città sia capo di Biscaglia, e si vede che le persone plebee in essa parlando Biscaino o Bascongado, come dicono, ch'è difficilissima lingua dapprendere, se ben li nobili parlano chiaramente castigliano (Ikusten da bertan (Vittoria) herritarrak Biscainoz edo Bascongadoz, eurek deritoten bezala, mintzo direla -ikasteko oso zaila den hizkuntza-, nobleak gaztelaniaz argitasun osoz mintzo diren bitartean)

Hirugarren lekukotza utzi zigun bidaiaria Nicolao Landuchio izan zen. Hark 6.000 hitzeko euskarazko hiztegia utzi zigun, euskarazko lehen hiztegia. Hiztegia osatzeko 3 arabarren laguntza izan zuen; bik Arabako mendialdeari lotutako euskara darabilte, erromanizatuagoa; hirugarrenak, berriz, Araba ekialdeko hizkera erabiltzen du. (Zuazo, 2012)



Landuchioren hiztegia.

Garai hartakoak dira Arabako lautadan bildutako lekukotzak. Alaiza, Gazeo, Langarika eta beste hainbat herritako parrokia-liburuetan, ezkontzetako sakramentua euskaraz azaltzen zen, bestela ez zutelako ulertuko (Breñas eta Otsoa, 2002):

Y estando casi los mas del pueblo presentes y les declare en bascuence el efecto y virtud grande del sacramento del matrimonio (Langarika, 1567)
declarando en vascuence de manera que ninguno pudiesse pretender ynorancia estando todos los vecinos y abitantes del dicho lugar juntos en la yglesia (Gazeo, 1569)

Arabako lautadatik mugitu gabe, beste lekukotza bat aurkitzen dugu XVII. mendearen hastapenetan Luzuriaga herrian. Bertan, kapilau jardungo zuen abadeari, besteak beste, honako baldintza hau ezartzen zaio:

a enseñar la doctrina cristiana en vascuence, cada domingo y fiesta de guardar, por si mismo o por otro sacerdote de quien tenga satisfaccion que lo pueda hacer bien (Luzuriaga, 1607)

Nolanahi ere, Landazuri historiagileak, garai horretan Araban gertatzen ari zen euskararen atzerakadaren arrazoiak aztertuta, 1798an honako salaketa hau egiten du Breñas eta Otsoaren hitzetan:

el haber entrado por curas párrocos en los pueblos de Alava personas que ignoraban este idioma, o que no hacían aprecio y caso de usar de él, pues si en los púlpitos hubieran explicado la doctrina christiana conforme lo hicieron sus antecesores y no en castellano, se hubiera conservado este idioma

XVII. mendean beste pasarte bat aurkitzen dugu, Arabako mendialdean oraingoan; hau ere *Arabako Euskal Hotsak* liburutik hartu dugu. 1610ean Logroñon egindako sorginen kontrako prozesuei dagokien paperetan, hainbat emakume arabar aipatzen dira (Ataurikoak, Zekuianokoak, Korresekoak....). Emakume hauek sorginkeriarekin harremanak izateaz akusatuta zeuden eta epaiketan bertan interpretea erabili behar izan zuten aipatutako paperetan agertzen den moduan:

y aviendo sela leydo y dado a entender el dicho ynterprete
aviendo sido llamada una mujer de la qual por medio de Fr. Thomas de Galarça y Fr. Pedro Ladron de la orden de S. Fancisco e ynterpretes de este sancto officio...

Arabako lautadara itzuliz, Santiago Ordenan sartzeko beharrezkoa omen zen sartu nahi zuenaren leinuaren noblezia egiaztatzea. Horretarako eskatzailearen inguruko pertsonen testigantzak jaso behar izaten ziren. Gauzak horrela, lautadako hainbat herritara eginiko bisitetan, berriemaileek honako pasarte hauek utzi zituzten idatzita:

no haber hallado en todo el pueblo (...) otra persona que entienda castellano ni sepa hablarlo (Arriola, 1614an)

todos hablaban bascuence muy cerrado sin hablar palabra de castellano (Ezkerekotxa, 1655)

en el lugar de La Angarica por avernos informado que ay pocos vecinos que sepan la lengua castellana, nombramos por interprete al dicho Juan Fernandez de Ocariz (Langarika, 1655)

XVIII. mendea:

Mende honek ere euskararen presentzia eta erabilera Arabako bazterretan guztiz zabaldua zegoela frogatzen duten lekukotza ugari utzi zizkigun.

Lehenengoa Agustin Kardaberaz jesuita gipuzkoarraren eskutik datorkigu eta Henrike Knörren *Arabako euskarari buruz jakin behar dena* liburutik hartua dugu.

Jesuita hau Araban barrena ibili zen sermoiak ematen, eta ibilaldi horietan, hain zuzen, lortu zuen 1761ean *Eusqueraren berri onac* liburuan argitaratu zuen ondoko lekukotza (Knörr, 1998):

Araban nenbilen batean, hango adiskide eta Erregeren Guardietako kapitan baliente batek behin esan zidan: "Aita, nola euskal herrietan umeen haziera ona eta behar den dotrinarik izango da, baldin euskara hondatzeko ahalegin guziak egiten badira, eta gure mutiltxo edo haurrei, beldur eta azotearekin, euskaraz hitz egitea eragozten bazaie?"


Bada beste lekukotza tamalgarri bat, aurrekoarekin lotua, eta erakusten diguna euskarak XVIII. menderako beste esparru bat, beste funtzio bat galdua zuela: eskola (Zuazo, 2012). Bada, Dulantziko Pablo Mendibil idazleak (Dulantzi, 1788-Inglaterra, 1832) bere herrian gertatutakoa kontatu zuen:

Que mi lengua es la vascongada, y para obligarme a que la olvide como si fuera incompatible con aprender y saber la castellana, me condenan a recibir el maldito anillo si se me escapa una sola palabra de las que mamé con la leche, aunque diga ama en lugar de madre, o pronuncie Jaungoikoa en lugar de Dios...

Pablo Mendibilek aipatzen duen eraztuna, eskutik eskura ibiltzen zen umeen artean. Euskaraz hitz egiten harrapatuz gero, elkar salatzera behartuta zeuden; beraz, euskararekiko gorrotoa eta mesfidantza sustatzen zen, ez bakarrik eskolan, baita eskolatik kanpo ere (Breñas eta Otsoa, 2002)

XVIII. mendeko lekukotzekin bukatzeko, ezin aipatu gabe utzi J.M Barandiaranek 1926an RIEV aldizkarian argitaratutakoa. Bertan, 1787. urtearen ondoren idatzitako "*Pueblos de Alava por Vicarías, repartidos sus vecinos en cinco clases*" koadernoan idatzitako honako pasarte honen berri ematen digu (Barandiaran, 1926):

Hablan el idioma bascongado muchos pueblos de la Vicaría de Vitoria, todos los de Gamboa, los mas de la de Salvatierra, los de la de Mondragon, Cigoitia, Zuya, Orduña, Ayala, Orozco y Tudela, en los quales a lo menos serian inutiles los Curas de concurso abierto, que ignorasen este idioma.



**Bi hizkuntzen arteko muga 1787an
Prestameroren arabera**

XIX. mendea:

XIX. mendean, euskararen egoerak ez zuen hobera egin Arabako lurretan. Hala ere, artean, bizirik eta indar handiz jarraitzen zuen hainbat lekutan. Hau da Manuel Llano arabar merkataria Frantziako kontsulordearentzat egindako txostenean marrazten zuen egoera:

- Asparrena, Agurain, Iruraitz, Gebara, Larrintzar, Barrundia eta Ubarrundia: euskaraz mintzatzen da.
- Legutio, Aramaio: “hitz egiten de guztia euskara da, bai eta gaztelania pixka bat ere”.
- Zigoitia, Zuia, Laudio, Aiara, Artziniega: “hermandade guztietan euskaraz mintzatzen dira, bai eta gaztelania ere, hiri handixka batzuk dituzten arren”. Arabako hiriburuari dagokionez, Llanok dio gaztelania dela “gehien hitz egiten dena... eta euskara oso gutxi” (H. Knörr, 1998).

Arabako lautadako eskualde burua den Agurainen, 1842. urteko Udal Ordenantzetan ageri denez, Barruti Judizialari zegozkion karguen artean, itzultzailearena zegoen, euskaraz baino ez zekitenentzat. (Breñas eta Otsoa, 2002).

Aipagarria da Louis-Lucien Bonaparte printzeak, euskalkien mapa egiterakoan deskribatu zuen egoera:

OKONDO: euskararen egoera larria da.

AIARA: Luiaondon bakarrik iraun du eta gaztelania nagusi da hemen.

LAUDIO: Egoera nahiko ona da.

LEZAMA: Baranbion ondo. Lezaman, Astobitzan eta Larrinben egoera larria da.

ZIGOITIA: Euskaldunak dira gehienak ondoko herrietan: Etxaguen, Murua, Murga, Larrinoa, Gopegi, Ondategi, Olano, Zaitegi, Akosta, Zestafe eta Eribe. Buruagan eta Berrikaon gutxiengoa dira.

UBARRUNDIA: Betolatza eta Ziraon euskaldunak dira gehienak. Luku, Uribarri Ganboa eta Landan gutxiengoa.

LEGUTIO: Nabarmen, euskara da nagusi.

GANBOA: Marieta eta Larrintzarren euskaldunak dira gehienak. Zuhatzun eta Langraizen gutxiengoa dira.

BARRUNDIA: Bertako hamahiru herrietatik Elgean soilik du indarra euskarak eta Ozeta, Hermua eta Larrean egoera oso larria da.

Odon de Apraiz ikertzaile arabarrak aurrerago zehaztuko zuen “Euskaraz hitz egiten den lurraldeak Arabako lurraldearen bosten bat hartzen du eta, biztanleei dagokienez, antzekoa da proportzioa” (Odon de Apraiz, 1976)

XX. mendea

Mende honen hastapenetan aurkitzen dugun panorama ez zen askoz hobe. *Arabako Euskal Hotsak* lanean irakur daitekeenez, “Zigoitia, Legutio eta Aramaioko udalek XX. mendearen lehen erdian bazituzten euskaraz mintzo ziren arabarrak, baita Zuia, Laudio, Amurrio eta Barrundiakoak ere, baina kasu bakanagoekin” (Breñas eta Otsoa, 2002)

Odon de Apraizek 1950ean egindako lan batean, honako egoera hau deskribatzen zuen:

Laudion euskaldunak zeuden inguruko baserrietan; Luiaondon euskaldun bakarra, Baranbion euskaldunak gutxienak ziren; Zuian euskaldunik ez; Zigoitian euskaldun banaka batzuk herri ezberdinetan banatuta; Aramaion euskara indartsu; Legution euskara entzuten zen; Ubarrundia, Barrundia, Araia, Zalduondo eta abarretan bertako euskaldunik ez. (H. Knörr, 1998)



Azkenik, aipatu beharrekoak dira Pedro Irizarrek 1973an eginiko galdetegiaren emaitzak: Araban, 1863 euskal hitzun besterik ez zegoen; hona Pedro Irizarren araberako banaketa: 1432 Aramaion, Laudion 200 (asko Bizkaiko herrietatik etorritakoak), Legution 198, Zigoitian 18, Baranbion 12 eta Barrundian 3 (hauek ere, beharbada, kanpotik etorritakoak).

Euskarak Araban galtzeko bidea ia egina zuenean, ikastolak eta gau-eskolak sortu ziren atzeraezina zirudien desagertze-prozesuari ateak itxiz. Askok dira, harrezkero, euskaldundu diren arabarrak EUSTATEko datuen arabera:

ESKUALDEAK	1981	1986	1991	1996	2001	2006
Arabako Ibarrek	39	45	89	167	325	966
Arabako Lautada	6555	12233	16080	30271	33781	58733
Arabako Mendialdea	20	77	172	231	360	556
Errioxa arabarra	80	307	662	978	1279	2436
Gorbeialdea	1551	1758	1734	2041	2502	3139
Kantauri arabarra	1441	3002	4258	6791	7065	8763

Euskaldunak guztira	9686	17422	22995	40479	45312	74593
----------------------------	-------------	--------------	--------------	--------------	--------------	--------------

Iturria: Eustat.

Euskararen kale-erabilera adin-taldeen arabera. Euskal Herria, 2011 (%)

Eremua	Urtea	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak
Euskal Herria	2011	19,21002	13,42179	11,77552	9,66512
Araba	2011	6,50292	5,74892	3,51592	1,23295
Bizkaia	2011	13,73997	8,55208	8,004	8,25284
Gipuzkoa	2011	48,86342	36,92408	28,75972	22,41895
Iparraldea	2011	9,60394	6,71918	5,49515	4,84282
Nafarroa Garaia	2011	7,45871	5,62269	5,40514	3,33989

Iturria: Soziolinguistika Klusterra.

5. EUSKARAK ARABAN JASANDAKO DEBEKUAK ETA ERASOAK

Aparteko atal bat merezi dute gure hizkuntzak jasan dituen debekuek eta erasoek, izan ere, neurri batean euskarak izan duen prestigioaren galera, pairatu duen gorrotoa eta euskal hiztunen hizkuntzarekiko estimu falta azaltzen dute. Ondorio nagusia familia-transmisioaren etena eta prestigio handiagoa zuen hizkuntza batek ordezkatzeari izan zen.

Ondoren aipatuko ditudan pasarteak Estitxu Breñasek eta Jabi Otsoa de Aldak bildu zituzten *Arabako Euskal Hotsak* lanean; hona haietako batzuk:

1768, ESKOLA.

Finalmente mando, que la enseñanza de primeras letras (...) se haga en lengua castellana (...), cuidando de su cumplimiento las Audiencias y Justicias respectivas.

1801, ANTZERKIA.

En ningún teatro de España se podrán representar, cantar ni bailar piezas que no sean en idioma castellano.

1803, ESKOLA.

Se ponen fiscales. Se admiten acusaciones, y para prueba del delito, corre un anillo de mano en mano, entre los que han tenido la fragilidad de haber hablado un solo vocablo bascongado. Llega el sábado, día cruel de residencia.

Toma asiento judicial el maestro, con la palma a un lado, y en el otro, el instrumento de sangre; pregunta, con semblante terrible, «¿quién tiene la sortija o anillo?». Todos acusan al reo; éste no puede negar el crimen, saca su funesta insignia temblándole las rodillas, y después de una severa reprensión por haber hablado en su idioma patrio, y no en el extraño, si quiere usar el Maestro de alguna misericordia, tómale las manos, y golpea sus palmas, y se retira el infeliz chiquillo sin atreverse a derramar una sola lágrima para que no le doblen la pena, pero si quiere seguir el Maestro el rigor judicial, le azota como a un esclavo, imaginando que la castellana letra «con la sangre entra» (Juan Antonio Moguel, 1803)

1937, EUSKARAZ HITZ EGITEN DUENA SALATZEA

se denunciará a todo aquel que infrinja lo dispuesto sobre prohibición de hablar idiomas y dialectos diferentes del castellano

Honako hau, berriz, Gasteizko Apezpikuaren 1910eko zirkularra, Joan Mari Torrealdairen *Euskararen Liburu Beltza* izeneko lanetik atera dut:

Varias veces, individuos de ese partido (el nacionalista) se han dirigido a Nos con descompuestos modales, pidiéndonos que autorizáramos que sus hijos fueran bautizados

en vascuence, porque de otro modo, no consentirían que fuesen bautizados, sin que, a pesar de nuestras paternas reflexiones para hacerlos desistir de sus depravados propósitos, lo hayamos conseguido en la mayoría de los casos. (Torrealdai, 1998)

Atal honetan, derrigorrez ekarri behar dugu berriro Agustin Kardaberaz jesuita gipuzkoarrak, Araban zehar zebilela, militar batekin izandako elkarriketan jasotakoa:

Aita, nola euskal herrietan umeen haziera ona eta behar den dotrinarik izango da, baldin euskara hondatzeko ahalegin guziak egiten badira, eta gure mutiltxo edo hurrei, beldur eta azotearekin, euskaraz hitz egitea eragozten bazaie? (Kardaberaz, 1761)

Bukatzeko, 22 urte besterik ez dira pasa El País egunkariaren orrialdeetan haxe irakurri genuela:

Unidad Alavesa, (UA), el partido foralista, (...) inició ayer tarde los debates de su primer congreso que culminará con el pleno del próximo sábado. Las ponencias presentadas establecen una actitud sumamente beligerante para con el euskera e incluyen expresamente la posibilidad de que Álava llegue a desgajarse de la Comunidad Autónoma. El título mismo de la ponencia, dedicada a la actuación lingüística: "¿Para qué necesita Álava una lengua nueva?", ilustra el grado de rechazo que el euskera, o mejor, la política aplicada por las instituciones en relación a la lengua vasca, suscita en los militantes de UA.

Euskarak jasandako debeku eta erasoen artean, aipatu ditugunak lagin txiki bat besterik ez dira. Hala ere, euskaldunek euren hizkuntzari uko egiteko arrazoia nahiko ondo azaltzen dutelakoan nago.

6. EUSKARAREN BILAKAERA SOZIOLINGUISTIKOA BARRUNDIAN

Zaila izan da Barrundiak eta bere herriek historian zehar euskararekiko izan duten harremana eta honen bilakaera soziolinguistikoa adierazten duten aipuak eta erreferentziak aurkitzea, izan ere, ez dira asko euskara eta Barrundia lotzen dituzten testuak edo lanak. Hala ere, atal honetan aipamen horiek kronologikoki josi eta denbora-mugarri gisa hartuta, euskarak Barrundian zehar egindako bidea marrazten ahaleginduko naiz.

Aurkitu dudan lehen erreferentzia idatzia XV. mendekoa da eta Gebarako judu euskaldunei buruzkoa da.


XV. mendearen erdialdean, Gebaran bizi zen komunitate judua euskalduna zen. Jasotako eskuizkribuan hileta batean abestu ziren koplak agertzen dira; hona koplen letraren bi ahapaldi(Breñas eta Otsoa, 2002):

Bicibayce hetoc yl Don Iacob [Bizi bada (judutar gisa), ez da hil (judutar gisa) Don Iacob]
Era fijele eguiia al dio é Enecó (Bera, hain fidela, egia al dio Enekok?)

XV. mendetik XVI. mendera salto egin behar dugu aipatu beharreko erreferentzia bat idatziz aurkitzeko: Joan Perez de Lazarraga.

1547 edo 1548an Larrean jaiotako idazlea, hego Euskal Herrian euskaraz idatzitako lehen testuaren egilea dugu.

Joan Perez de Lazarragaren eskuizkribua



XVI. mendean jarraituz, Felix Antonio Lopez de Luzuriaga, erlijioari buruzko hainbat euskarazko eskuizkriburen egilea, aipatu beharra dugu. Langarika herrian jaio zen. Hala ere, Felix Antoniok Barrundiako arbasoak ei zituen, ama eta aitona Herediakoak eta amona bat Ozetakoa (Breñas eta Otsoa, 2002)

XVIII. bukaera aldera, Lorenzo Prestamero artxibozaina eta Euskalerriaren Adiskideen Elkarteko kidearen koaderno batean, honako pasarte hau agertzen zen (JM Barandiaran, 1926):

Hablan el idioma bascongado muchos pueblos de la vicaría de Vitoria, todos los de Gamboa, los más de la de Salvatierra, los de la Mondragón, Cigoitia, Zuya, Orduña, Ayala, Orozco y Tudela, en los cuales a lo menos serian inútiles los Curas de concurso abierto, que ignorasen este idioma.

Aipatu beharra dago garai horretan gaur egun ezagutzen ditugun Barrundiako herriak "Gamboa" eta "Salvatierra"-ko "vicaría"-tan banatuta egongo zirela; Prestameroren paperetan irakurri ahal izan dugunez, artean, bietan ere euskaraz hitz egiten zen.

Hurrengo erreferentzia kronologikoa Odon de Apraizen *El euskera en Alava en la última centuria (1850-1950)* izeneko lanean aurkitu dugu (Apraiz, 1976). Bertan, Apraizek bi informazio-iturritatik edaten du; bata, Louis Lucien Bonapartek XVIII. mendearen erdialdean egindako ikerketan oinarritutakoa; bestea, Apraizek berak 1917. urtean Landatik Araiara egindako bidaiari izandako esperientzian.

Apraizek, Bonapartek 1863an idatzitako karta batean oinarrituta, dialektologiaren ikuspuntutik, honako aipamena egiten du Elgea herriari buruz (Apraiz, 1976):

El vasco de Aramayona es indudablemente afín al de los pueblos del alto Deva (...). En cuanto lo poco que conocemos de Elguea, parécenos que tiene o tenía más relación con la comarca de Oñate.

Testu berean, aurrerago eta oraingo honetan soziolinguistikaren ikuspuntutik abiatuta, hauxe diosku:

Veamos pues la clasificación de los pueblos vascófonos alaveses, agrupados por ayuntamientos (...) Barrundia: de sus 13 pueblos se conservaba bien el vascuence en Elguea y agonizaba en Ozaeta, Ermua y Larrea.

Apraizek egindako lanarekin jarraituz, 1917an Landatik Araia eta Aguraineraino joan zen bertako euskararen egoera aztertzeko asmoarekin:

En agosto de 1917 hicimos una excursión (...) recorriendo durante dos días a pie desde el apeadero de Landa hasta Araya y Salvatierra. Nuestro objeto era apreciar los residuos euskerianos que quedaban en aquella zona, donde Bonaparte, informado por Echenique, situaba tres pueblos (Larrinzar, Marieta, Elguea) de vascuence dominante y siete de vascuence agonizante.

Testuan aurrera egin ahala, inguru horietan behatutakoa deskribatzen digu; Barrundiako herriei dagokiena soilik aipatuko dut:


En nuestra encuesta de 1917 insistimos especialmente en Elguea y Larrinzar (...) pueblos netamente vascófonos para Bonaparte. Expondremos los escasos resultados que obtuvimos.

En Elguea conocimos un joven como de veinticinco o treinta años, Pacho K., nacido en el pueblo y que hablaba vascuence vizcaíno, con más dificultad que nosotros. Es el único euskeldun elgueano que realmente conocimos.

Honela jarraitzen du:

En todo el resto del recorrido, en el borde de Álava lindante con Guipúzcoa (Ozaeta, Larrea, Ermua, Aspuru, Narbaja, Arriola, Gordoia, Galarreta) no encontramos resto viviente de lengua vasca.

Louis Lucien Bonapartek egindako euskalkien mapa



1973an, Pedro Irizarren galdetegiko emaitzak agertu ziren. Aipatutako galdetegian, Euskal Herriko euskal hiztun kopurua zehazten ahalegindu zen eta Barrundiako emaitza hutsaren hurrengo izan zen. Guztira, 3 euskal hiztun zenbatu zituen, eta seguruenera, kanpotik Barrundiara joandakoak izango ziren (Knörr, 1998).

Ondorioz, esan dezakegu XIX. mendearen erdialdera Barrundiako jatorrizko hizkuntzak atzerakada nabarmena egina zuela; izan ere, Elgean baino ez zegoen osasuntsu eta Ozeta, Hermua eta Larrean, ordurako, galzorian zegoen.

Koska bat atzerago eginez gero, Prestamero artxibozainaren paperetan ageri denez, XVIII. mendearen bukaeran, artean, Barrundiako herrietan ulertuak izateko, apaizak euskaldunak izan behar ziren, argi adierazten duenez honako pasarte honetan: “en los cuales a lo menos serian inútiles los Curas de concurso abierto, que ignorasen este idioma”.


Gauzak honela, ditugun datuak aztertu ondoren, nahikoa frogatuta dago euskara ez dela ez Araban eta ezta Barrundian ere hizkuntza arrotz bat, Euskal Herriko beste herrialderen batetik inportatutako hizkuntza bat; alta, bereberezkoa dugu euskara Barrundian.

Hizkuntzaren galerari dagokionez, esan dezakegu, bere osotasunean hartuta ez bada ere, Barrundiako euskararen azken gotorlekuan transmisioaren erabateko etena pasa den mendearen hasieran gertatu zela.

Hala ere, arian-arian, buelta ematen ari zaio egoerari. Gaur egungo datuei erreparatzen badiegu, argazkia honako hau litzateke (2011ko datuak argitaratu gabe daude):


Ezagutzaren bilakaera:

	1981	1986	1991	1996	2001	2006
Euskaldunak	18	47	46	77	128	210
Euskaldun hartzaileak	45	71	65	21	92	146
Erdaldunak	565	489	456	451	403	430



Etxeko hizkuntzaren bilakaera:

	1991	1996	2001	2006
Euskara	0	2	13	28
Gaztelania	564	518	601	746
Biak	6	30	21	34
Beste bat	3	4	5	9



2011ko datuen faltan, ezagutzaren bilakaera eta etxeko hizkuntzaren datuak ikusita, igoera handia izan du euskarak. Kale-erabileraren daturik ez dagoen arren, Barrundiako herrietatik paseatzea baino ez dago herritarrek euskaraz entzuteko, batez ere haurrak tartean badaude. Inoiz izan zuen lekua berreskuratuko ahal du!

7. ONDAREA: TOPONIMIA, EUSKAL JATORRIZKO HITZAK

Milaka dira Barrundiako lurretan aurkitzen ditugun euskal jatorria duten leku-izenak. Errekak, haranak, soroak, herrixkak ... izendatzeko gure arbasoek euren hizkuntzan jarritako izenek mendez mende iraun dute: Bidazurioste (Heredia), Bizkarbaltza (Elgea), Zuazola, Larrea, Lazkanosolo (Etura)... (Lopez de Guereñu, 1989)

Beste galdu ezinezko harribitxia da Barrundiako jendeak, eta oro har Arabakoak, erabiltzen dituen euskal hitzak gaztelaniaz hitz egiterakoan. Belaunaldiz belaunaldi heldu zaizkigu ahozko tradizioaren bidez eta gaur egun oso ohikoa da Barrundiako herritarren artean entzutea: *abarra* (abarra, adarra), *colco* (kolko), *chepech* (txepetx), *escuara* (eskuare), *maquil* (makila)...

Ez da lan honen helburua hitz horien edota Barrundiako toponimoen bilketa egitea, izan ere, aspaldi bilduta daude. Bai, ordea, adieraztea ondare horren jatorria orain dela ez asko ahoz aho erabiltzen zen euskaratik datorkigula.



Barrundiako Udalak argitaratutako liburuxkaren azala



Gerardo Lopez de Guereñu

egindako Arabako toponimia

Arestian esan bezala, toponimo eta hitz horien guztien bilduma egina dago; beraz, honetaz gehiago jakin nahi izanez gero, lan honen bibliografiara jo besterik ez dago. Hala ere, aipatu nahi nuke 2009an, Barrundiako Udalaren ekimenez, herritarrek erabiltzen zituzten hitzen bilduma egin zela. Ehunka hitz jaso ziren eta 2011n liburuxka bat argitaratu eta herritarren artean banatu zuten.

Liburuxka hau lan honen eranskinetan aurkitu dezakezue.

Orain arte, historiak utzitako testuetan oinarrituta, denboran kokatu dugu euskararen ordezkapena eta galera Barrundian. Gureganaino heldutako ondarea ere adierazle gisa erabili dugu Barrundiako jatorrizko hizkuntza euskara dela frogatzeko. Hurrengo atalean, hizkuntza ordezkapenaren arrazoiak aztertuko ditugu.

8. HIZKUNTZA-IRAUPENA ETA ORDEZKAPENA

Orain arte ikusi dugu euskarak Araban eta Barrundian azken mendeetan izan duen bilakaera objektiboa, kausak aztertu gabe; mendez mendeko atzerakada geldiezina nola joan den gauzatzen; euskarak, hegoaldetik zetorren hizkuntza arrotzari lekua nola utzi zion erabat desagertu arte.

Baina, zergatik eta nola gertatu zen fenomeno hori? Zeintzuk izan ziren arrazoiak betidanik euskaraz mintzo ziren arabarrek euren hizkuntzari uko egiteko? Zer diote adituek hizkuntzen desagertpenaren inguruan? Eta hizkuntzen galera azaltzen duen marko teoriko horretan, non koka dezakegu euskararen auzia?

Hurrengo lerroetan, hizkuntza-iraupenaren eta ordezkapenaren arrazoiak azaltzen ahaleginduko naiz, bai eta Araba eta Barrundiako euskaran izan zuten eragina ere.

A. Hizkuntzaren jarraipena eta ordezkapena.

Hona hizkuntza-jarraipena eta hizkuntza-ordezkapenaren definizioak:

Hizkuntza-jarraipena: "Pertsona edo hizkuntza-komunitate batek bere hizkuntzari eustea eta, beraz, hizkuntza hori ez galtzea" (Zarraga eta beste batzuk, 2010).

Hizkuntza-ordezkapena: "Hizkuntza batek beste hizkuntza baten erabilera-eremuak eta funtzioak irabaziz joatean gertatzen den prozesua" (Zarraga eta beste batzuk, 2010).

Definizio hori norbanakoari edo hizkuntza-komunitateari aplikatu dakioke, hiztun batek edo komunitate batek bere hizkuntza uzten duenean eremu edo funtzio zenbaitetan beste bat erabiliz.

Ordezkapena baino lehen, diglosia edo elebitasun soziala gertatu behar da. Alegia, gurasoak beren ama-hizkuntza ez den hizkuntza transmititzeko, elebidunak izan behar dira, beste hizkuntza bat jakin behar dute, nahiz eta 2. hizkuntza horren ezagutza-maila ez den erabakigarria. Garrantzitsuenak hizkuntza hori transmititzeko borondatea izatea da. UNESCO etxeko dokumentazioan oinarrituta, transmisio-etete egoeran bizi direnen testigantzak ekarriko ditut gogora (Martí eta beste, 2005):

Hace algunos años había muchas familias que negaban su identidad maya (...) Hay numerosas familias que ya no transmiten este idioma a sus hijos por la discriminación cultural que hay en el país. La persona vale si habla el castellano, porque es el idioma oficial. Si habla solo su idioma, es ignorada, despreciada, marginada. Por esta razón, muchas familias se inclinan por el castellano como idioma materno para sus hijos (archiera, Guatemala).

El japonés está reemplazando al ainu. Desde el año 1868 el pueblo ainu es impulsado a aprender japonés para sobrevivir (ainuera, Japonia).

“Normalmente la lengua pasa de una generación a otra. Sin embargo, debido a las instituciones que efectúan genocidio cultural y asimilación como las escuelas residenciales indias, el lenguaje no está siendo enseñado a las futuras generaciones” (mi'kmawera, Kanada).

Los que no lo hacen [hizkuntza seme-alabei irakastea] es por no vivir en el territorio del idioma, por una fuerte asimilación del castellano como producto del sistema educativo del país, por presiones del racismo y la discriminación de parte de la mayoría de los castellano-hablantes, por la falta de una política pluralista de parte del Estado (kanjobalera, Guatemala).

Hizkuntzaren transmisioa etetearen arrazoiak nahiko argi antzeman daitezke aurreko testigantzetan. Hizkuntza txikiak eta baztertuak hitz egiten dituztenek eurek bizi izan dituzten egoerak ekidin nahi dituzte euren oinordekoentzat, eta hori lortzeko tresna prestigiozko hizkuntza bat irakastea izaten da.

Hizkuntzaren ordezkapen eta galera-prozesua akulturazioarekin batera doa, hiztunek jatorrizko ezaugarri kulturalak galdu eta beste kulturarenak hartzen dituztelako.

Ordezkapen-prozesuaren bukaeran, hizkuntza ordezkatuak zituen gizarte-esparru eta funtzio guztiak galtzen ditu.

Hizkuntza-ordezkapenaren prozesua azkarra izan daiteke, belaunaldi batean hizkuntza batetik beste batera pasatuz. Hori da Arabako eta, oro har, Euskal Herriko familietan gertatu dena, gaztelaniak euskara ordezkatu du belaunaldi bakar batean.

B. Hizkuntza gutxituen jarraipenaren edo ordezkapenaren eragile objektiboak eta subjektiboak

Hizkuntza gutxituen kasuan, ordezkapenarekiko erresistentzia-indarrak indibidualak edo kolektiboak izaten dira; adibidez, hizkuntza-leialtasuna maila indibidualean edo hizkuntza-plangintza maila kolektiboan. Indibidualetan, ama-hizkuntzaren transmisioa hizkuntzaren jarraipenerako baldintza nagusia da. Lehen a gabe ez dago bigarrenik, hezkuntza-sistemaren bidezko transmisioak ez duelako hizkuntzaren bizitza segurtatzen.

➤ faktore objektiboak:

- **Faktore demografikoa.** Gutxi mintzatua izan den hizkuntza batek iraun dezake hiztunek beren hizkuntzaren jarraipena garrantzitsutzat hartzen baldin badute. Hala ere, gutxiengoaren hizkuntza-komunitatearen tamainak haren hizkuntza-leialtasuna determina dezake eta masa

kritikoa izan daiteke, bereziki gizarteak integrazio-ahalbide asko eskaintzen dituenean (Calvet, 1999). Halaber, garrantzitsua izan daiteke hiztunen banaketa lurraldean zehar: bilduak ala sakabanatuak diren, hiztunen trinkotze-maila.

Beraz, faktore demografikoa hiru zatitan bereiz daiteke: hiztun kopurua, proportzioa beste hizkuntzetako hiztunen aurrean eta distribuzioa lurralde horretan.

- **Kontrol eta babes instituzionala.** Hizkuntza gutxituen kasuan, sostengu instituzionala beharrezkoa da gutxitze-prozesua geldiarazteko, hizkuntzak bereak dituen erabilera-esparru eta funtzioak zaindu eta berriak eskura ditzan. Babes instituzional horren adibide garbia aurki dezakegu Arabako Batzar Nagusietan 1682. urtean (Landazuri aldizkaria, 1994)

En esta Junta, habiendo reconocido que el procurador que vino de la hermandad de Arciniega ni sabia romance, ni entendía lo que los dichos señores decidieron y decretaron, consideraron los inconvenientes que de no entender se pueden originar a su Hermandad, pues no se puede dar su voz y voto a los negocios que se tratan en esta dicha Junta. Decretaron que de aquí en adelante los procuradores que vinieren de cada Hermandad sean personas de las más idóneas y capaces para que puedan dar su sano voto y parecer en todos los casos que se puedan ofrecer en sus Juntas y que si así no le hicieren sea multada la hermandad que le enviare en cinco mil maravedíes y el procurador que viniere que no supiere romance en otros cinco mil maravedíes, y mandaron que nos, los secretarios, notifiquemos dicho decreto a todos los señores para que lo hagan saber a todas sus Hermandades, y luego (...) don Antonio González de Zuazo y Mújica, procurador de la Hermandad de Aramayona, protestó el dicho decreto, y dichos señores, sin embargo se dicha protesta, mandaron se ejecute de aquí adelante, y demás de dicha pena sean echados de la Junta los procuradores que vinieren y no supieren romance.



Horrela laburbiltzen du K. Zuazok:

Herrialde honetako gizarte-sailik esanguratsuenetan (noblezia, burgesia eta hiritarrak oro har) eta gizarteko esparrurik esanguratsuenetan (administrazioa, auzitegiak ...) gaztelania nagusi izanak erabat mugatu zuen bertako euskararen geroa. (Zuazo, 1997)

- **Hizkuntzaren estatusa.** Gizarte jakin batean hizkuntzak beste hizkuntzen aldean duen lekua ere garrantzitsua da. Estatus hori estatus sozioekonomikoan, estatus soziologikoan, prestigio soziokulturalean, eta abarretan sailka daiteke.

Faktore hauen neurria handia, ertaina edo txikia izan daiteke, eta, horrela, hizkuntzaren jarraipenaren edo ordezkapenaren faktore objektiboak neur daitezke.

Euskararen egoera orokorraren kasuan, hain denbora luzean bizirik irauteko, jarraipenaren aldeko faktoreak positiboak izan dira historian zehar, nahiz eta estatus, demografia eta sostengu instituzionaleko irizpideak ongi bete ez. Barrundiako euskararen kasuan, aldiz, jarraipenaren faktore nagusia ez zen bete: familia-transmisioa.

➤ **faktore subjektiboak**

- Faktore subjektiboetan hizkuntza-identitatea eta hizkuntza-kontzientzia aipa ditzakegu. Lehena da “pertsona edo giza talde baten identitatearen eta hizkuntza baten artean dagoen lotura. Pertsona edo giza talde bakoitzak hizkuntza jakin batekin (edo gehiagorekin) lotzen du bere identitatea” (Zarraga eta beste batzuk, 1010). Bigarrena da “norberaren hizkuntzari kultura-balio bereizgarria ematetik eta hizkuntza horrek norberaren hizkuntza-komunitatea definitzen duela kontsideratzetik sortzen den motibazio arrazionala. Motibazio horren bidez, hizkuntzaren ezagutzari eustea eta ezagutza hori sakontzeko joera sustatzen da” (Zarraga eta beste batzuk, 1010).

C. Hizkuntzaren zabalkundea

Esan dugun bezala, hizkuntza baten ordezkapenak bere ordez beste bat jartzea inplikatzeko du; batak besteak betetzen zituen erabilera-esparruak eta funtzioak betetzen ditu.

Hizkuntza baten zabalkundea bi irizpideren arabera neur daiteke: hiztun kopuruaren arabera eta dituen funtzioen arabera. Lehen ebaluazio-irizpidea demografikoa da, bigarrena funtzionala.

Hona hemen hizkuntzaren hedapenean eragiten duten hainbat faktore:

- **Faktore geografikoa.** Soziolinguistika eskuliburuaren arabera, “hizkuntzak, bide naturalei jarraiki, ibaien bidez zein itsasoetan zehar hedatzen ziren, merkataritzarekin, kolonizazioarekin eta abarrekin. Azken urteotan, garraioen garapenak eta aldaketa teknologikoek geografiari lotua den faktore horren eragina murriztu egin dute. Baina, ikusten den bezala, geografia ez da bere baitan faktore abiarazle edo erabakigarri bat, errazte-faktore bat da. Faktore erabakigarria komertzioa egiteko beharra da, edo kolonizatze nahian komunikatzeko hizkuntza baten beharra.” (Zarraga eta beste batzuk, 1010)

- **Hiri-faktorea.** Dirudienez, hirietako biztanleek errazago ordezkatzten dute hizkuntza baserrikoek baino. Landa-eremuko biztanleriak beste hizkuntza-komunitate batetik bere burua kontzienteki bakar dezake, (Fishman, 1972: 126-127). Horren adibide garbia dugu Gasteiz eta bere inguruko herrietako kasuan; izan ere, Gasteizen euskara etengabeko atzerakadan zegoenean, bere inguru hurbileko herrietan eutsi egiten zioten euskarari. Horrela jakinarazi zigun XVI. mendean Gasteiztik pasatutako A. Navagiero bidaiari italiarrak: “Parlano in Vittoria Castigliano, ma intendeno ancho Basuenze, & delle ville piú parla Biscaino”
- **Faktore ekonomikoa.** Merkataritzak ezinbestean hizkuntza-komunikazioa inplikatzeko du eta, beraz, hizkuntza komun bat.
- **Erligio-faktorea.** Hizkuntza batzuen hedapena erlijio berezi bati lotua izan da, hala nola arabiera islamari, sanskrito hinduismoari, latina katolizismoari. Ez dirudi faktore hori Barrundian, euskararen atzerakadan erabakigarria izan zenik; aldiz, JM Barandiaranek 1926an Prestameroren artxibategitik ateratako eskuizkribu batean oinarrituta, “El euskera en Alava a finales del siglo XVIII” izeneko artikulua idatzi zuen.

Bertan, Arabako herri gehienetan euskaraz mintzo zirela aipatzen zen eta, horregatik, abade euskaldunak bidali behar zirela iradokitzen zuen; hona pasarteak (Barandiaran, 1926):



Hablan el idioma bascongado muchos pueblos de la Vicaría de Vitoria, todos los de Gamboa, los más de la de Salvatierra, los de la de Mondragon, Cigoitia, Zuya, Orduña, Ayala, Orozco y Tudela, en los cuales a lo menos serian inútiles los Curas de concurso abierto, que ignorasen este idioma.

Edonola ere, lan honetan bertan atzerago aipatzen den bezala, Landazuri historiagileak salatu egin zuen Arabako herrietara apaiz erdaldunak bidaltzen zirela sarri eta horrela izan ez balitz “se hubiera conservado este idioma” (Landazuri, *Arabako Euskal Hotsak* liburuan, 49. or.)

- **Faktore militarra.** Hizkuntzak inbasio militarrekin batera ere hedatzen dira, inbaditzaileen edo konkistatzaileen hizkuntza inposatuz.
- **Faktore politikoa.** Hizkuntzen hedapena ere botere politikoari lotu zaio. Hizkuntza batzuk, nazio-hizkuntzak izanik, estatu hedakorrekin hedatzen dira. Hau da neurri batean Araban Espainiako nazio-hizkuntzarekin gertatu dena.
- **Faktore kulturala.** Hizkuntza bat prestigiodun izan daiteke, bere literaturarengatik edota zibilizazio-hizkuntza izateagatik.

Garatu gabe geratuko zaizkigu faktore fisikoak (hondamendi naturalak, gaixotasunak ...), nire ustez Barrundiako euskararen galeran eraginik izan ez zutelako edo, izan bazuten, oso txikia izan zelako.

Gauzak honela, ikusi ahal izan dugunez, aipatu ditugun faktoreek modu batean edo bestean, maila handiagoan edo txikiagoan, zuzenean edo zeharka, baina zerikusia izan zuten Barrundiako egoera soziolinguistikoaren bilakaeran eta euskararen funtzioen galeran.

9. BARRUNDIAKO HERRITARREN EUSKARAREKIKO JARRERAK ETA PERTZEPZIOAK

Orain arte ikusi ahal izan dugu euskararen ordezkapen-prozesua nola gauzatu zen Araban eta Barrundian. Hainbat autorek idatzitako lanak mugarri hartuta, euskarak egindako atzerakada marraztu dugu. Bestalde, hizkuntza baten ordezkapen-prozesuan eragiten duten faktoreak zerrendatu ditugu beste atal batean. Oraingo atal hau ikerketa honen muina da, eta lerro hauetan deskribatu den hizkuntza-galeraren inguruan Barrundiako herritarrek duten iritzia ezagutuko dugu.

Galde-sortaren metodologia

Barrundiako 35 pertsonari egin zaie galde-sorta. Galde-sorta 3 bloketan planteatuta dago eta guztira 20 item erabili dira; honako hauek:

A. blokea

- Barrundiako hizkuntza euskara da.
- Euskara Barrundiako hizkuntzetako bat da.
- Barrundian ez da inoiz euskaraz hitz egin.
- Nire familian inoiz ez da euskaraz hitz egin.
- Barrundian, euskara galdu zen gaztelania inposatu zigutelako.
- Barrundian, euskara galdu zen modu boluntario eta kontzientean.

B. blokea

- Ez dugu euskara hiltzen utzi behar.
- Euskararen erabilera sustatzearen aldekoa naiz.
- Ezinbestekoa da euskararen sustapenean diru publikoa gastatzea.
- Euskara dagoeneko ez dago desagertzeko arriskuan.
- Euskara landa-eremuko hizkuntza bat da.
- Ez litzateke euskararen berreskurapenean dirua inbertitu beharko.
- Gure udalak diru gehiago inbertitu beharko luke euskararen berreskurapenean.
- Euskara berez berreskuratuko da belaunaldi berriak ikasten ari direlako.
- Euskara hizkuntza bat baino gehiago da, nortasun adierazle bat da.

C. blokea

Zaila	1	2	3	4	5	6	7	Erraza
Arrotza	1	2	3	4	5	6	7	Gurea
Alferrikakoa	1	2	3	4	5	6	7	Beharrezkoa
Iragana	1	2	3	4	5	6	7	Etorkizuna
Herria	1	2	3	4	5	6	7	Hiria

Galde-sortaren lehen blokean, Barrundian euskararen desagerpenari buruz duten iritzia galdetu zaie. Horretarako, egindako baieztapenari adostasuna edo ezadostasuna azaldu behar zioten.

Bigarren blokean, erantzuteko dinamika bera jarraituz, euskararen egoerari buruz eta berreskuratzeko ahalegin instituzionalei buruz galdetu zitzaien.

Hirugarren blokean, aldiz, beste ariketa bat planteatu zitzaien. Bi adjektibo edo kontzeptuen artean, 1etik 7rako eskala batean euskara puntuatu behar izan zuten; hau da, lehen errenkadaren kasuan, euskara oso zaila dela pentsatuz gero, 1a markatu behar zuten; oso erraza dela iritziz gero, 7a; zailtasun ertaina irudituz gero, berriz, 4a.


Galde-sorta gehienak aurrez aurre egin ziren; hala ere, esan beharra dago hainbat galdetegi telefonoz ere egin zirela Barrundiako herri guztietako partaidetza bermatze aldera.

Adinari dagokionez, 3 adin-tartetan banatu ditut inkestatuak: 20-40; 41-60 eta 60-100.

Hurrengo atalean, galdetegiaren emaitza kuantitatiboak azalduko ditut.

Galde-sortaren emaitzak: datu kuantitatiboak.

Arestian esan bezala, 35 pertsonari egin zitzaaien galdetegia. Horietatik 8, 20 eta 40 urte artean zeuden, 15, 41 eta 60 urte artean eta beste 12k, 61 urte baino gehiago zuten.




Zonaldeei dagokienez, Barrundiako herriak bi zonaldetan banatu nituen:


- ✓ Iparraldekoa: Marieta, Ozeta, Elgea, Hermua eta Larrea.
- ✓ Hegoaldekoa: Matura, Mendixur, Etxabarri Urtupiña, Gebara, Etura, Audikana, Dallo eta Heredia.

Galdetutako pertsona guztien artean 19 iparraldeko herrietan bizi ziren eta 16 hegoaldekoetan. Iparraldeko inkestatu kopurua hegoaldekoa baino altuagoa izateko arrazoia da iparraldeko herrietan jende gehiago bizi dela, aldea oso nabarmena ez den arren (Eustat, 2011):

- ✓ Iparraldean: 513 biztanle
- ✓ Hegoaldean: 419 biztanle




Inkestatuen euskararen ezagutzari erreparatuz gero, honako emaitza hauek jaso nituen:



2006ko inkesta soziologikoaren datuen arabera, Barrundian % 26,71 zen euskalduna, % 18,57 euskaldun hartzalea eta % 54,7 erdalduna. Zentzu horretan, 2011ko datu ofizialen faltan, esan dezakegu bat datorrela orduko ezagutzaren argazkia oraingoarekin. Kontuan hartzeko moduko datu bat ere aipatu beharra dago, izan ere, 2006ko inkesta soziologikoan 2 urtetik gorako pertsonak hartzen ziren kontuan; nik egindakoan, berriz, 20 urtetik gorakoak soilik. Hortaz, ez dirudi gehiegikeria bat 7 urte hauetan helduen artean ere euskararen ezagutza igo egin dela esatea.

Euskararekin euren inguru hurbilean duten harremanaz galdetuta, esan beharra dago galdetutako pertsonen % 41ek euskara dezente erabiltzen dela perzibitzen duela; % 55ek, ordea, apur bat erabiltzen dela edo ez dela ia erabiltzen pentsatzen du. Erabilera-datu ofizialik ez dugunez, ezin dugu konparaziorik egin.



Orain arte azaldu ditugun datuak objektiboak izan dira, galde-sortaren eta hartutako laginaren nolakotasuna azaltzen dute. Hemendik aurrerakoak, oster, iritziak dira, guztiz subjektiboak, baina Barrundiako herritarrek euskararen galeraren inguruan duten pertzepzioa ulertzen lagunduko digutelakoan nago.


Esandakoak esanda, hurrengo lerroetan niretzat esanguratsuenak diren datu kuantitatiboak eman eta horien analisi kualitatiboa egingo dut.

A. Blokea: Barrundian euskararen desagertpenari buruzko iritziak:

Zeintzuk dira Barrundiako herritarrek euskaren gainean dituzten iritziak? Nola sentitzen dute euskara? Geure buruari halako galderak eginez hasi dugu lan hau eta egindako galdetegiaren erantzunak ikusita argitzen saiatuko gara.


Iritzien inguruko lehen itema honako hau izan zen:

- a. “Barrundiako hizkuntza euskara da”: galdetutako pertsonen %46 ez ados ez aurka azaldu zen. Aipatzekoa da % 34 alde azaldu zela; hala ere, esanguratsuena da ia erdiak ez zuela jarrera argirik hartu baieztapen horren aurrean. Nire ustez, honek item horren egokitasun edo zehaztasun falta adierazten du, alegia, jendeak ez zuela argi izan zein zen bere jarrera itema bera ez zelako argia.
- b. “Euskara Barrundiako hizkuntzetako bat da” baieztapenaren aurrean, aldiz, jarrerak askoz argiago geratu ziren; izan ere, %63 guztiz ados agertu zen eta %23 ados. Honek nahiko argi uzten du euskara ere hizkuntza propio gisa dutela Barrundiako herritar gehienek.





- c. Gauza bera gertatzen da hurrengo itemari erreparatzen badiogu: “Barrundian ez da inoiz euskaraz hitz egin”. Herritarren %80 guztiz kontra edo kontra azaldu zen. Hortaz, esan dezakegu Barrundiako herritar gehienek badakitela Barrundia inoiz euskaraz bizi izan zela. Baina, euren arbasoak euskaldunak zirelako iritzia al dute?

- d. “Nire familian inoiz ez da euskaraz hitz egin” Hemen kolore guztietako iritziak aurkitu ditugu:



Soilik herritarren %49k uste du euren etxeetan euskaraz mintzo zirela, nahiz eta aurreko itemean %80k uste zuen Barrundian euskaraz hitz egiten zela. Esanguratsua da galdetutakoen artean laurdenak ez duela jarrerarik hartu, ez ados ez kontra azaldu dira

- e. Baina, nola eta zergatik ordezkatu zen hizkuntza? “Barrundian euskara galdu zen gaztelania inposatu zigutelako” baieztapenaren aurrean, herritarren %60 guztiz ados edo ados azaldu zen; %17 aldiz, aurka.
- f. “Barrundian euskara galdu zen modu boluntario eta kontzientean” itemaren gaineko iritzia ere aurrekoaren norabide berean doa; izan ere, antzeko ehunekoak ateratzen zaizkigu: % 69 baieztapenaren aurka dago eta % 6 alde. Ikus ditzagun biak ondorengo grafikoetan:



Ondorioz, nahiko argi geratzen da Barrundiako etxeetan jendeak badakiela udalerriko hizkuntza euskara izan zela, nahiz eta ez duten hain argi euren familian hitz egiten zen edo ez. Horren arrazoia izan daiteke hizkuntzaren transmisioarekin batera, informazio hori ere eten egin zela, horregatik ez da iritsi gaur egungo belaunaldietaraino. Izan ere, lan honen atal teorikoan


azaltzen den bezala, hizkuntza minorizatu eta baztertuetako hiztunek ez dute nahi izaten euren oinordekoentzat haiek bizi izan dituzten egoerak.

Bestalde, azpimarragarria iruditzen zait barrundiarrek duten euskararekiko atxikimendua eta nola sentitzen duten euskara euren herriko hizkuntza gisa, nahiz eta kasu gehienetan ez ezagutu.


B. blokea: euskararekiko jarrerak/pertzepzioak

Lehen esan bezala, bigarren bloke honetan euskararen inguruan eta berreskurapenaren inguruan dituzten iritzia jaso nituen. Hona item bakoitzean ateratako emaitzak:


- a. Lehen itema, “ez dugu euskara hiltzen utzi behar” izan zen. Oso esanguratsua da inkestatuen %74 guztiz ados dagoela eta beste %26 ados.
- b. “Euskararen erabilera sustatzearen aldekoa naiz” baieztapenarekin %97k bat egiten du eta soilik %3 ez dago ez alde eta ez kontra. Azken bi item hauetan euskararekiko atxikimendua ia erabatekoa da.
- c. Hirugarren itemean, honako baieztapen hau proposatu zitzaion: “Ezinbestekoa da euskararen sustapenean diru publikoa gastatzea”. Bada, horren aurrean ere adostasun handia azaldu zuten; galdetutako pertsonen %80 guztiz ados edo ados zegoen diru publikoa gastatzearekin eta soilik %20 ez ados eta ez aurka.
- d. Laugarren itemari dagokionez, hauxe izan zen planteatu zitzaion baieztapena: “Euskara, dagoeneko, ez dago desagertzeko arriskuan”. Herritarren %34 baieztapen horren aurka edo guztiz aurka jarri zen; %26 ez ados eta ez aurka eta beste %40 ados edo guztiz ados. Argi dago askok oraindik ikusten duela arrisku puntu bat, baina, aurreko baieztapenen aldean, honetan ez dago adostasun handirik.




- e. “Euskara landa-eremuko hizkuntza bat da” izan zen bosgarren baieztapena. Bada, galdetutako herritarren %48 guztiz kontra agertu zen; %28 ados edo guztiz ados eta %20 ez ados eta ez kontra.
- f. Seigarren itema hauxe izan zen: “Ez litzateke euskararen berreskurapenean dirurik inbertitu beharko” Baieztapen honetan jarrera garbia agertu zuten galdetutako herritarrek, izan ere, %89 kontra edo guztiz kontra agertu zen, alegia, euskararen berreskurapenean dirua inbertitzearen alde.




- g. Zazpigarren itemean, aldiz, iritziak ez ziren aurrekoan bezain argiak izan. “Gure udalak diru gehiago inbertitu beharko luke euskararen berreskurapenean” baieztapena irakurrita, 38 puntu jaisten da diru publikoa inbertitzearen aldeko iritzien kopurua, %51raino hain zuzen. Guztiz kontra, inkestatuen %3 agertu zen.



- h. Hurrengo baieztapena “Euskara berez berreskuratuko da belaunaldi berriak ikasten ari direlako” izan zen. Item honetan kontrakoak eta aldekoak daude ia proportzio berean. Gainera, horri gehitu behar diogu %39 ez kontra eta ez alde agertu zela. Beraz, nik esango nuke oraindik badagoela eskolak dena konponduko duela pentsatzen duen jendea, gutxitutako hizkuntza baten normalizazio-prozesuan eragiten duten bestelako faktoreak kontuan hartu gabe; eskola faktore bat da, baina ez bakarra. Hona iritzi-nahasmen hori irudikatzen duen grafikoa:



- i. Bloke hau bukatzeko, honako baieztapen hauxe egin nien: “Euskara hizkuntza bat baino gehiago da, nortasun adierazle bat da”. Kasu honetan, iritzien balantza aldeko jarrera dutenengana makurtu zen, galdetutako herritarren %80k ados edo guztiz ados erantzun baitzuen. %14k ez zuen jarrerarik hartu eta %6 aurka agertu zen.



C. Blokea:

Azken ariketa honetan, jendeari eskatu zitzaion bi kontzeptuen artean, euskara zeinetatik ikusten duten gertuen. Horretarako, 1etik 7rako eskala batean zenbaki bat aukeratu behar zuten. Hona kontzeptu-bikote bakoitzaren emaitzak:

Zaila	1	2	3	4	5	6	7	Erraza
-------	---	---	---	---	---	---	---	--------

Lehen bikote honetan, iritziak ezin banatuago agertzen zaizkigu. Hala ere, multzokatuz gero honako emaitza hau ateratzen zaigu: %65,69k 1, 2 eta 3 zenbakien alde egin du; %11,42k 5 eta 6 zenbakiak aukeratu zituen eta %22,85ek 4a aukeratu zuen. Hortaz, euskara zaila delako iritzia dute inkestatuen 2 herenek.

Arrotza	1	2	3	4	5	6	7	Gurea
---------	---	---	---	---	---	---	---	-------

Kasu honetan herritar gehienek bat egin zuten euskara gurea dela adierazten duten zenbakiekin: %5,7k 5aren alde egin zuen; %20k 6a aukeratu zuen eta %68,5ek 7a. Soilik %5,7k egin zuen bat 4 zenbakiarekin.

Alferrikakoa	1	2	3	4	5	6	7	Beharrezkoa
--------------	---	---	---	---	---	---	---	-------------

Hirugarren bikote honetan, inkestatuen %2,85ek soilik aukeratu zuen 4az azpiko zenbakiren bat, 3a hain zuzen. Beste guztien hautuak honela banatzen dira: %51,42k 7a markatu zuen, %25,71k 6a, %8,57k 5aren alde eta %11,4k 4a aukeratu zuen. Nabarmena da euskara beharrezkoa delako (edo beharko lukeelako) iritzia.

Iragana	1	2	3	4	5	6	7	Etorkizuna
---------	---	---	---	---	---	---	---	------------

Kontzeptu-bikote honetan, galdetutako herritarren %48,5ek 4 zenbakia aukeratu zuten euskara iragana eta, era berean, etorkizuna dela argudiatuz. Beste %51,4k etorkizunaren aldeko 5, 6 eta 7 zenbakiak aukeratu zituen. Iragana kontzeptutik gertuen dauden zenbakiak inork ez zituen aukeratu.

Herria	1	2	3	4	5	6	7	Hiria
--------	---	---	---	---	---	---	---	-------

Kasu honetan, herritarren %85,7k erdiko bidea hartu zuen; hau da, 4a ala 1a eta 7a aukeratu zuten. Aurreko bikotean bezala, honetan ere ia guztiek euskara bai herriarekin eta baita hiriarekin ere identifikatu zuten eta horrela azaldu zuten 4a edo 1a eta 7a aukeratzerakoan.

Hortaz, herritar gehienek euskara landa-eremuko eta eremu urbanoko hizkuntza gisa hartzen dute.

10. ONDORIOAK ETA ETORKIZUNeko ERRONKAK

Galde-sortaren emaitzak ikusita, honako ondorio hau nabarmendu nahi nuke beste guztien gainetik: Barrundiako herritarrek duten euskararekiko atxikimendua.

Nahiz eta ezagutza %36 ingurukoa izan (Eustat, 2006), euskara hizkuntza propio gisa dute, gaztelaniarekin batera. Horren arrazoia izan daiteke euskararen galera Barrundian orain dela ez asko gertatu izana eta, gaurdaino heldu den ondareaz harro, euskararen aldeotasun nabarmena dutela.

Zentzu horretan, aipagarria da euskara etorkizuneko hizkuntzatzat hartzen dutela; etorkizuna euskaraz datorrelako ustea dagoela esango nuke.

Azpimarratuko nukeen beste arlo bat da gehiengo handi bat baliabide publikoak erabiltzearen alde dagoela, %89, hain zuzen. Barrundiako udalak diru publikoa inbertitzeko beharra bere egiten du galdetutako herritarren %51k.

Gauzak horrela, euskararen normalizazioa sustatzeko oso baldintza egokiak daudela esango nuke, Barrundiako herritarren artean aldeotasun nabarmena dagoelako. Barrundiako herritarren motibazioaren ontziak nahikotasun maila gaituta duela uste dut; ezagutzarena ere gora doa eta bien isuriekin erabilerarenak, arian-arian, gora egingo duelakoan nago.

Edonola ere, zeregin honetan Barrundiako eta Lautadako euskalgintzak eta instituzioek (Udala, Lautadako Kuadrilla, ...) zeresan handia izan dute. Hor dugu 2010etik garatzen ari diren Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia. Erronka honen lidergo partekatua hartu eta hizkuntza-plangintza eraginkor bat abiatu dute.

Aipatu nahi nituzke Plan Estrategiko horretan, nire ustez benetan estrategikoak iruditzen zaizkidan arloak: familia-transmisioa eta aisialdia.

Gurasoengan eragitea euren seme-alabekiko dituzten hizkuntza-ohiturak alda ditzaten edota hasieratik euskaraz sor ditzaten, hizkuntzaren zabalkunderako eta biziraupenerako gakoa dela iruditzen zait. Hala zen garai batean Barrundian, eta, pixkanaka-pixkanaka, hala izango ahal da etorkizunean.

Bestalde, aisialdia eta denbora librearen esparru estrategikoa dela uste dut; izan ere, herritarren artean euskaraz aritzeko aukerak eta guneak sortzea eta sustatzea ezinbestekoa iruditzen zait euskararen erabilera handituko bada.

Bukatzeko, Barrundiako erabileraren ontzia betetzeko, oraindik, lan eskerga dago egiteko; hala ere, euskaraz bizi ahal izateko behar diren baldintzak jartzen hasita daude.

11. BIBLIOGRAFIA

APRAIZ, Odón, (1976). *El vascuence en Vitoria y Álava en la última centuria*. Gasteiz: Arabako Foru Aldundia.

BARANDIARAN, Joxe Miguel (1926). El euskera en Álava a finales del siglo XVIII. RIEV, 17, 464-467 or.

BARREÑA, A., JUARISTI, P. (2011) 1.1 Hizkuntza gutxituak nazioarte mailan. *HIZNET, Hizkuntza Plangintza Unibertsitateko Espezialista*. Donostia-San Sebastián: Euskal Herriko Unibertsitatea.

AGURAINGO ESKUALDEKO EUSKARA ZERBITZUA. (2009). *Barrundiako euskal hitzen bilduma*. Agurain.

BREÑAS GLZ DE ZARATE, Estibaliz eta OTSOA DE ALDA GURRUTXAGA, Jabi (2002). *Arabako Euskal hotsak*. Gasteiz: Geu Aldizkaria-Geu Elkarte.

CALVET, Louis-Jean. (1999) *Pour une écologie des langues du monde*. Paris: Plon.

FISHMAN, Joshua A. (1972). *The sociology of language. An interdisciplinary social science approach to language insociety*. Rowley (Massachusetts): Newbury House Publishers.

INTXAUSTI, Joseba (1994). *Euskara Araban-El euskera en Álava*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

IRIZAR, Pedro. (1973) *Los dialectos y variedades de la lengua vasca: estudio lingüístico-demográfico*. Donostia: Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País.

KNÖRR, Henrike (1998). *Arabako euskarari buruz jakin behar dena*. Gasteiz: Vital Kutxa Fundazioa.

LOPEZ DE GUEREÑU, Gerardo. (1989). *Toponimia alavesa seguido de mortuorios o despoblados y pueblos alaveses*. Bilbo: Onomasticon vasconiae 5. Euskaltzaindia.

MARTÍ, Felix. (2005): *Words and Worlds. World Languages Review*. Erresuma Batua: Multilingual Matters.

ZARRAGA, Arkaitz eta beste batzuk, (2010). *Soziolinguistika eskuliburua*, 1. edizioa. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. Andoain: Soziolinguistika Klusterra.

ZUAZO, Koldo (1997). *Euskara Araban*. Uztaro, 21, 79-95 or.

ZUAZO, Koldo (2012). *Arabako euskara*. Donostia: Elkar.

WEBGUNEAK:

Barrundiako udalaren webgunea:

www.barrundia.net

Eustat, EAEko datu estatistikoak:

www.eustat.es